



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2016ko maiatzaren 31, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 19:35 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola (5. puntutik aurrera), Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Miriam Uranga Egurtza zinegotziak (Orain) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Udal kontu-hartzaileak emandako txosten honen berri ematea: Aurrekontu-egonkortasuna, jasangarritasun finantzarioa eta gastuaren erregela, Udalaren 2015eko aurrekontu propioaren likidazioaren onarpena dela-eta.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 3/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua gehitzeko modalitatean egin dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 4/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egin dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, honako ordenantza fiskalaren aldaketa: Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin.
- 5.- Onartzea, egoki bada, izaera urbanoko ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaizkion karga-tasen aldaketa, ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituenak.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko jaieguna 2017. urterako.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko udal hilerriko arautegiaren 44. eta 45. artikulua aldatzea.
- 8.- Onartzea, egoki bada, udal ordezkariak izendatzea Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza batzorderako eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitaterako (UEMA).
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- UDAL KONTU-HARTZAILEAK EMANDAKO TXOSTEN HONEN BERRI EMATEA: AURREKONTU-EGONKORTASUNA, JASANGARRITASUN FINANTZARIOA ETA GASTUAREN ERREGELA, UDALAREN 2015EKO AURREKONTU PROPIOAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA DELA-ETA.

Udalbatzarrak udal kontu-hartzaileak 2015eko udal aurrekontuaren likidazioaren onarpena dela-eta egindako txostenaren berri jasotzen du. Txostena aurrekontu-



egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzkoa da, eta bertan honako hau ondorioztatzen da: 2015eko likidazioaren espedienteak ez du betetzen aurrekontu-egonkortasuneko eta gastuaren erregelako helburua eta betetzen du iraunkortasun finantzarioko helburua.

Indarrean dauden arauen arabera (Gipuzkoako Toki Entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta iraunkortasun-finantzarioaren alorreko babes finantzarioaren eskuduntza garatzen duen otsailaren 8ko 1/2003 Foru Arauaren 5. artikulua —Neurri zuzentzaileak— eta 2015eko aurrekontuan prestatu, onartu eta exekutatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu behar duten Instrukzioa onartzen duen 2014ko azaroaren 18ko Gipuzkoako Foru Gobernuako Kontseiluaren erabakiaren 1. eta 2. erregelak), defizitaren eta aurrekontu-egonkortasunaren eta iraunkortasun finantzarioaren helburuak betetzeko —zor publikoaren helburua edo gastuaren erregelaren helburua betetzen ez den kasuan—, plan ekonomiko-finantzario bat formulatu behar da, aipatutako helburuak edo gastuaren erregela urtebetean betetzeko aukera emango duena.

Hala ere, ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada —eta hori da Oriko Udalaren kasua—, plan ekonomiko-finantzario bat egiteko partez, entitateko udalbatzarrari Kontu-hartzaileak egindako txosten baten berri eman beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita; txosten horretan Kontu-hartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatuko du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 3/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2016 zenbakidun espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egin dago eta 38.896 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 3/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egin dago eta 38.896 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:



a) Ikusgai dagoen tokia: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 4/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2016 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 17.534 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAICA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 4/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 17.534 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen tokia: Idazkaritza-kontu-hartzailletza



b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HONAKO ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK UDALERRIETAKO KALEETAN APARKATZEA, HORRETARAKO ERABAKITAKO ZONEN BARRUAN ETA MUGA JAKIN BATZUEKIN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA honako ordenantza fiskalaren aldaketa: Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin. Onartu den aldaketa honako hau da:

Orion etxebizitza baten titularrak diren baina erroldatuta ez dauden pertsonak aukera izango dute Udalaren eranskailu bat lortzeko etxebizitza bakoitzeko eta ibilgailu bakar baterako; betiere, ibilgailua etxebizitzaren titularraren jabetzakoa bada; eranskailua eskuratzeko, 45 euro ordaindu beharko dituzte 2016ko denboraldian eta horrekin aukera izango dute Antillako hondartzako aparkalekuan eta inguruko besteetan aparkatzeko uda aurreko eta udako denboraldian; eranskailuaren eskaera aldeztu aurretik egin beharko dute udal bulegoetan, honako agiriak aurkeztuz:



- *Orion etxebizitza baten titular direnak eta bertan erroldatuta ez daudenak: jabetzaren eskriturak edo etxebizitzaren titulartasuna frogatzen duen erregistroaren ziurtapena, ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta Udalaren eranskina ordaindu izanaren agiria.*

ONARTZEN DA, baita ere, Orioko Udal Kanpinean partzela finkoak dituzten bezeroek ere aukera izango dutela Udalaren eranskailu hori eskuratzeko: eranskailu bat partzela finkoko ibilgailu bakoitzeko.

19:55 orduak direla, Aizpea Ubegun Manterola zinegotzia (EH Bildu) sartzen da bilkurara.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, IZAERA URBANOKO ONDASUN HIGIEZINEN GAI NEKO ZERGARI APLIKAGARRI ZAIZKION KARGA-TASEN ALDAKETA, ONDORIOAK 2017KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DITUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzordearen diktamenaren arabera aldatu nahi diren karga-tasak honako hauek dira:

- 0,3964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- 0,2024, gainerako ondasun higiezineterako.

EH Bildu talde politikoaren bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta adierazten du gainerako ondasun higiezineterako proposatu den 0,2024ko karga-tasa ezartzeak esan nahi duela %18,80 igoko dela, gutxi gorabehera, zergaren kuota, eta, hori dela-eta, bere talde politikoak proposatzen du karga-tasa hori %15 jaitea, zergaren kuotaren igoera ez izateko horren handia. Ondorioz, EH Bildu talde politikoak proposatutako karga-tasa 0,17204koa izango litzateke zona industrial edo tertziarioetan kokatuta ez dauden gainerako ondasun higiezineterako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita eta udalbatzar honetan EH Bildu talde politikoak egin duen proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAIIKA ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzio botoak: Iparragirre (Orain), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:



LEHEN ONARPENA EMATEA izaera urbanoko ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketari, ondorioak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituenak. Aldaketa horren arabera, honako karga-tasak ezarriko dira:

- 0,3964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- 0,17204, gainerako ondasun higiezinatarako.

2.- Erabaki hau eta hasitako espedienteak JENDAURREAN jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduari 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiari argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkeztean ez bada, hartutako erabakiak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAIEGUNA 2017. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak diktaminatu du Orioko herriko jaieguna 2017. urterako ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko maiatzaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2017. urtean ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta berreskuratu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren maiatzaren 10eko 71/2016 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2017. urterako.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL HILERRIKO ARAUTEGIAREN 44. ETA 45. ARTIKULUAK ALDATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2016ko apirilaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko udal hilerriko arautegiaren 44. eta 45. artikuluen aldaketari, honako zentzu honetan:

- **44. artikulua.** *Gorpuen ehorzketarako egokituriko nitxoan erabilera hamabost urterako emango da eta, aldez aurretik propio eskatuta, bost urteko luzapena eman ahal izango da.*
- **45. artikulua.** *Gorpu hondakinen edo errautsen ehorzketarako egokituriko kolunbarioen erabilera hogeitaz urterako emango da, eta, aldez aurretik propio eskatuta, hamar urteko luzapena eman ahal izango da.*

2.- Espedientea JENDAUURREAN JARTZEA, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal arautegiaren aldaketa hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezteko, behin betikoz onartutzat joko da udal arautegiaren aldaketa, beste erabakirik gabe.



8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDERAKO ETA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATERAKO (UEMA).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, aurkeztu diren proposamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- Gotzon Igoa Agirrezabal zinegotzia (EH Bildu) **IZENDATZEA** Orioko udalbatzarraren ordezkari ordezeko Urola Kostako Udal Elkartearen Zuzendaritza batzordean, kargua utzi duen Amaia Dorronsoro Portularrumeren ordezkari.

2.- Aitziber Campos Morey zinegotzia (EAJ) eta Bixente Lasa Karrikaburu zinegotzia (EH Bildu) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari titular Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA), Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziaren ordezkari, EAJren kasuan, eta kargua utzi duen Amagoia Iribar Mantzizidor zinegotziaren ordezkari, EH Bilduren kasuan.

3.- Lourdes Salsamendi Goñi zinegotzia (EAJ) eta Emeterio Iribar Sorazu zinegotzia (EH Bildu) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari ordezeko Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA).

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

EH Bildu talde politikoaren bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta adierazten du penagarria izan zela espazio publikoen garbitasun-falta maiatzaren 14ko Bailearen Egunaren ondoren. Alkateak erantzuten dio esanez Obra eta Zerbitzuetakoko batzorde informatzailearen hurrengo bileran behar diren azalpen guztiak emango direla horri buruz, eta adierazten du berak ere asko sentitzen duela gertatutakoa.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,